

HEZKUNTZA

Euskararen berreskuratzea IV

Garabide Elkartea



Egilea: Garabide Elkartea

Jose Arana, 13. 20540 Eskoriatza. Gipuzkoa.

Tel: 943250397.

www.garabide.org / garabide@garabide.org

Koordinatzailea: Alberto Barandiaran

Kolaboratzaileak: Amaia Antero, Julen Arexolaleiba, Miren Artetxe, Andoni Barreña, Kristina Boan, Itziar Elortza, Xabier Garagorri, Eneritz Garro, Aldegundo Gonzalez, Iñaki Gonzalez, Viviana Elorza, Itziar Idiazabal, Urko Kolomo, Ibon Manterola, Arantza Munduate, Inma Munoa, Gualberto Quispe, Uri Ruiz Bikandi, Pili Sagasta, Jon Sarasua, Matilde Sainz, Pablo Suberbiola, Cesar Telegario.

Diseinua:  zure balioen marka



ASKE ZARA:

- Lan hau kopia, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Lan eratorriak egiteko

BALDINTZA HAUETAN:

- ⓘ **Aitortu:** Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).
- ⚙ **Ez merkataritzarako:** Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.
- Ⓢ **Partekatu baimen beraren arabera:** Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdin-berdineko baten mende.



HEZKUNTZA

Euskararen berreskuratzea IV

Koordinatzailea: Alberto Barandiaran

AURKIBIDEA

Hitzaurrea

Sarrera.....	09
Hezkuntzaren garrantzia.....	10
Nazioarteko legedia.....	12

Irakaskuntzaren egoera munduan.....	15
Irakaskuntza ereduak	16

Euskal eskolarantz.....	21
Ikastolen sorrera.....	21
Hautu pertsonalaren garrantzia.....	22
Pedagogia	24
Ikas materiala	26
Irakaskuntza publikoan ere bai.....	27
Haur erdaldunak nola euskaldundu	31

Curriculum.....	33
Euskal curriculum.....	35
Pilotaren kixkia.....	36
Euskal curriculum.....	38

Eleaniztasuna helburu.....	41
Eleanitz proiektua	43

Nola antolatu irakaskuntza eredu bat.....	47
Bibliografia.....	51

Beste kontinenteetako jatorrizko hizkuntzetako lagunekin esperientziak trukatzeko hastean, lehen pertsona hitz egiteak beti laguntzen du, eta nire eskola-ibilbidea bera izaten dut adibiderik grafikoena. Jaio nintzenean euskara legez kanpo zegoen, ikas-toletan nolabaiteko egoitzetan eta ikaslibururik gabe hasi ziren umeen lehen belaunaldi hartakoa izan nintzen, orain unibertsitatean euskaraz ari naiz lanean, hizkuntza horretan ikertu eta irakatsiz. Tartean, lau hamarralditan bizi izan ditugu hizkuntza eta kultura berreskuratzeko ahaleginaren nekeak, aurrerapausoak, pozak eta ezinak. Utopikoak ziruditen amets txikiak gauzatzen ikusi ditugu, eta hala ere kolokan gaude oraindik. Euskara higatu baten loraldiarekin batera hazitako pertsonak gara.

Ibilbide partikular horrek badu nazioarteko dimentsio bat ere. Nazioartekotasuna jarrera bat da, garenak eta egiten dugunak izan dezakeen geruza zabalago bat. Batzuetan, munduko herriekiko zubiak eraikitzen hasiz gero, ohartzen gara hor sortzen den ideia eta emozio trafikoa emankorra dela, baten esperientzia bereziki esanguratsua izan litekeela beste batentzat, edota bestearen galderak zure galderak direla. Gai batzuek nazioarteko korapiloak egiteko soka-mutur asko dituzte, eta horietako bat da euskal hezkuntza.

Euskararen berreskurapenaren zutabeak diktadura frankista betean jarri ziren, itxuraz dena kontra zegoenean, legearen azpitik eta gaintik, administrazioaren inolako baliabide publikorik gabe. Halaxe sortu eta garatu zen, susmopean eta estatuaren laguntzarik gabe, berpizkundearen zutabe nagusia ere, euskal hezkuntza. Hori hutsetik martxan jarri zuten gure gurasoek ideia indartsu bat izan zuten gainera: asmatuko zuten eskola mota berrian, euskara nagusi izango zen, ez zen bigarren hizkuntza izango. Baldintza zail haietan ere, ez zuten hezkuntza elebidunaren bidea hartu. Euskara, bizitza publikotik ia desagertutako eta debekatutako hizkuntza hura, ardatz izango zen, ia erabat hizkuntza horretan izango zen beren seme-alaben hezkuntza berria. Eta hala hasi ziren, dirua herritarrak jarritz, handik eta hemendik bilduz, egoitzarik gabe, irakasle gazteak nonbaitetik sortuz. Horrek ekarri gaitu gaur gauden puntura. Orain euskal hezkuntza sistema konplexua da, bukatugabea, bere emaitzak ematen ari dena, haur eskolatik unibertsitateraino.

Egun munduko hizkuntza askok mahai gainean dute gaia. Desagertzera lerratzeke kinkan daude, edota biziberritzeko bideak nonbaitetik sortu beharrean, eta hezkuntza arautua beren kultura biziberritzeko zutabe nagusi bat izan litekeela susmatzen dute gehienek. Baina nola irauli hezkuntza arautua hizkuntzaren gainbide izatetik hizkuntzaren bide izatera etor dadin? Nondik hasi? Nola egin aurre prozesuko mila oztopori?

Euskararen herriak ez dauzka erantzunik. Kontakizun bat du, eta horren barruan narrazio txikiak, xehetasunak, esperientziak, bihurguneak, materialak. Baieztapenezko testigantza bat barreiatzen du: egin liteke, asma liteke jatorrizko hizkuntzan ardaztutako hezkuntza. Ikuspegi demolinguistikotik, euskara ez zegoen hobeto orain munduko jatorrizko hainbat hizkuntza daudena baino. Posible dira biziberritze prozesuak. Baieztapen horrez gain, ehunka xehetasun, estrategia, hutsune eta galdegai dituen gorputz bizi bat da euskal hezkuntza.

Eta zer dugu guk ikasteko? Hezkuntza arautuari garrantzia gehiegi eman ote diogu eta familiaren, izadiaren, espirituaren arreta ahuldu? Hezkuntza estandarregia egin ote dugu hainbat arlotan? Beste aspektu batzuetan uniformizazioaren ideiak eraman ote gaitu eskola berdinazalea egitera? Zer duzue guri irakasteko zuen hezkuntzaren ametsen?

Guretik ematerakoan, nazioartekotasunaren sokazko zubi haue-tan euskal hezkuntzaren emarian zerbait azpimarratu behar banu, hasierako intuizioen ganora eta egikaritzeko kemena aipatuko nituzke. Ametsa, konfiantza, konpromisoa eta gaitasuna uztartu zituzten gure gurasoen belaunaldiko bultzatzaileek. Horiexek beharko dira nonahi ere, eraldaketaren diskurtsoak erraz baitaibiltza aspaldi honetan, baina errealitateak desafio zehatzak jartzen baititu aurrean.

Ahalegin egikaritu baten kontakizuna dakar Alberto Barandiaranek gure sail honetako laugarren lan honetan. Izan bedi ahalegin egikarituaren bidelagun.

Jon Sarasua

SARRERA

"Baina nik, izkuntza larrekoa
nai aumat ere noranaikoa;
yakite-egoek igoa;
soiña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa"

Lizardi

"Hizkuntza muina da, esentzia; hizkuntzarik gabe ezin dugu antzeman zer sentitzen dugun, zer pentsatzen dugun, eta esaten dugunean gure buruarekin ondo sentitzen garela, esan nahi dugu parte hartu dugula hizkuntza erabili den erritoren edo zeremoniaren batean, eta jaingo-jainkosekin edo izaki izpiritualekin komunikatu garela. Horregatik, hizkuntza pentsamenduari balioa emateko tresna da. Ez baitugu musxkek (zuriek) bezala pentsatzen".

(Nasa herria, Kolonbia)



Gizakiak gara hitz egiten dugulako. Hizkuntza da gizakiok, elkarrekin harremanetan jartzeko, erabiltzen dugun tresna. Hizkuntza eta hizkuntzari esker, bestea gutako hartzen dugu. Hizkuntzak pentsatzeko balio du, baina hizkuntza ez da inorena, elkarrekin dugun zerbait da. Taldearen ondarea da. Eta taldeek, horregatik, hizkuntza erabili, aldatu, aberastu, narriatu, desitxuratu egiten dute, baina inoiz ez hiltzen. Ez dago bere hizkuntza abandonatu nahi duen talde edo erkidegorik. Inork ez du giza espeziearen muinean dagoen harremana posible egiten duen hizkuntza hil nahi.

Hizkuntzak behartuta abandonatzen dira, bortxaz baino ez. Alegia, kolonialismoagatik, hiztun taldea kontzienteki baztertzeko joera dagoelako, edo zibilizazio baten bultzada politiko, ekonomiko eta militarragatik. Horregatik, garai eta toki guztietan galdu dira hizkuntzak, edo hizkuntz ordezkapenak gertatu dira, baina hizkuntzaren ikuspegi ekologikoa izatea ez da alferrikakoa. Hizkuntza bat galtzea animalia espezie bat galtzearen parekoa da. [Mundua pobretu](#) egiten da, hizkuntza bat galtzen den aldioro mundua bera beste modu batez pentsatzeko aukera bat galtzen delako.

Hizkuntzaren baitan giza taldearen identitatea bizi da. Nortasuna. Horregatik, inongo giza taldek ez du beste giza talde bat bere hizkuntzaz erantzeko eskubiderik, bere izaeraren parte ezinbesteko bat erantzten diolako horrela. Eta mundu guztiak duelako kultura jarraipena ziurtatuta edukitzeko eskubidea.

Hizkuntzak ez direlako soilik ideiak, nahiak eta esperientziak trukatzeko bitartekoak. Hizkuntza kultura batean errotutako produktua da, eta kultura horren igorle tresna nagusia. Komunitatearen identitatearen euskarria, beraz. Gizabanakook gure hizkuntzaren bidez ikusten dugu inguruko mundua.

Hizkuntza, gainera, kultura ere bada. Kulturaren lehen agerbidea. Hitz egiten dugu kultura daukagulako, kultuak garelako. Hain zuzen ere hizkuntza da lehen oinarria kulturaz jabetzeko. Bestela, nola jasoko genuke gure gurasoen jakintza? Nola, haien esperientzia? Zer beste bide dago gure lurraldean bizi diren guztien jakintza pilatua gure egiteko? Hizkuntza da informazio hori guztia, ikasitako dena gizaldiz gizaldi igortzeko bidea.

Baina jakintza eta esperientzia horiek guztiak askotarikoak dira, lurraldeak adina. Amazonian bizi diren gizon-emakumeen bizi esperientzia pilatuak zerikusi gutxi dauka Groenlandiako inuitenenarekin, edo Magrebe-koenarekin, edo navajoenarekin, edo euskaldunenarekin, edo Himalayaren beheko bailaretan bizi direnenarekin,

edo Londreseko edo Quitoko edo Zee-landa Berriko edozein hirikoenenarekin. Horregatik, hizkuntzak oso desberdinak dira, bakoitzak esperientzia bati erantzun desberdinak eman behar izan dizkiolako. Hizkuntza bakoitza hiltun komunitate baten jakintza ondarearen isla da. Eta haietako bat desagertzen denean, jakintza multzo bat desagertzen da. Liburutegi ikaragarri baliotsu eta errepikaezina.

Hezkuntzaren garrantzia

Hezkuntzak sekulako garrantzia dauka hizkuntzen geroan. Etxean jasotakoa eta kulturaren bidez jasotakoa osatzeko balio du, hiltun osoak sortzeko beraz. Hitzunari, gainera, konfiantza ematen dio bere ama hizkuntzan aritzeko eta sortzeko. Baina, kasu askotan, eskola erabili izan da hizkuntzak baztertzeko. Are gehiago: esan liteke eskola izan dela botere esparrukoak ez diren hizkuntzak zanpatzeko bitartekorik indartsuena eta erabiliiena. Eskolak prestigioa zabaldu izan duela, eta kultura nagusia eta unean uneko boterearen ideologia nagusia ezartzeko tresna eraginkorra izan delako.

Historikoki, eskolan, eta batez ere goimailako hezkuntzan, bakarrik hizkuntza nagusiak kontuan hartu izan dira. Eskolaren helburu nagusietako bat

idazten eta irakurtzen irakastea izan da, hain zuzen ere hizkuntza ustez nagusi horien erabilera handitzeko eta gartzeko. Horregatik, beste hizkuntzek ez dute lekurik izan hezkuntza sisteman. Joera hori batez ere XIX. mendearen erdialdean hasi zen kontzienteki indartzeko, hezkuntza sistemen atzean zeuden ideologiek bultzatuta. Eta hori bereziki Europan edo Mendebaldeko zibilizazioaren menpeko lurraldeetan gertatu da: hizkuntza nagusia eta bakarra irakatsi du eskolak, eta komunitate elebidunak edota hizkuntza gutxitudun komunitateak elebakartasunerantz bultzatu ditu. Hau da, beren hizkuntza baztertzera. Zergatik? Uste zabaldu samarra delako gutxiengoaren hezkuntza sustatzeak estatuen batasuna bera auzitan jartzen duela. Mehatxua dela. Orobat, elebakartasuna normalizat eta naturalizat hartu izan da.

Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da. Eleaniztasuna ohiko errealitatea da mundu osoan, eta munduko herrialde gehienak eleaniztunak dira. Pentsa: ia 6.000 hizkuntza daude mundu osoan, eta berrehun bat estatu baino ez! Hizkuntza bakar bat ofizializat hartuta duten estatuetan ere, gehienetan kultura tradizio ezberdineko giza taldeak egon ohi dira, eta kultura horren agerbidea hizkuntza dela badakigu. Are gehiago, bakartuta iraun ez duten kultura guztien tradizioaren parte izan da auzoko hizkuntza jakitea.

Horregatik, elebakartasunak herrialdearen batasuna bermatzen duela esatea



Hizkuntza gutxitudun komunitateen hizkuntza eskubideak bermatzeak herrialdea kulturalki aberatsago egin dezake

ikuspegi murritza edukitzea da. Hizkuntza gutxitudun komunitateen hizkuntza eskubideak bermatzeak komunitate horien autonomia kulturala, ekonomikoa eta politikoaren iraupena ziurta dezake. Hau da, herrialdea kulturalki aberatsago egin dezake. Eta aniztasuna indarra da, indar ekologikoa eta kulturala.

Elebakartasunaren beste iritzi faltsu bat: homogeneizazioa ezinbestekoa da gaur egungo munduan aurrera egiteko, eta partikularitasunak kaltea baino ez dakar. Ez da egia: hizkuntza aniztasunak areagotu egiten du gizakiaren sormen gaitasuna; koloreztatu egiten du, ñabartu. Baliabide gehiago ematen dizkio erronka berriei aurre egiteko, jakintza pilatua handiagoa delako.

Hezkuntza debate honen erdi-erdian dago. Gutxiengo kultural eta linguisti-

koen eskubideak ziurta litzakeen eskola mehatxu bezala ikusi izan da, eta ikusten da, toki askotan; estatuaren desintegrazioarako urrats moduan. Horren aurrean, esan behar da estatu elebakarrak talde etnikoen arteko kooperazioa eta konfiantza hausten dituela, eta hizkuntza handiaren eta ofizialaren komunitatera harrokeria, etnozentrismoa eta arrazismoa dakarrela. Horren ondorioa izan ohi da komunitate txikiekiko errespetu falta, gorrotoa eta, ondorioz, hizkuntza gutxituen desagerpena. Eta hizkuntza gutxituetako komunitateei haurrak jatorrizko hizkuntzan eskolatzea eragoztearaz giza eskubideen bortxaketa garbia da, genozidio linguistikoa dakarrelako. Linguizidioa eta, ondorioz, kulturzidioa.

Nazioarteko legedia

Kontzeptu hauek guztiak ez dira komunitate edo ekintzaile edo pentsalari talde batek errebindikatutako eskubideak soilik; nazioarteko legeriak babestutakoak dira. 1996ko Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, esaterako, hizkuntza-komunitate guztiari eskubidea aitortzen die hizkuntzaz baliatzeko, hizkuntza indartzearen. Eta hezkuntzaren maila guztietan komunitatearen hizkuntzak izan behar duen presentzia eta erabilera erabakitzeko eskubidea aitortzen zaio hizkuntza komunitateari.

Egia da, nolanahi den, hezkuntzak ez duela beste esparruen trataera berdina hizkuntza eskubideei dagokienez. 1948ko [Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak](#), esaterako, hezkuntzari dagokion paragrafoan ez du hizkuntzaz deus esaten: "1. Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarritzko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarritzko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goi-mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merizimenduen arabera. 2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen jarduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan".

Azken urteotan ekarpen interesgarriak ageri dira hainbat txostenetan, hezkuntzaren esparruan hizkuntza gutxituen eskubideez. Umeen Eskubideei buruzko Nazio Batuetako Konbentzioak, esaterako, 30. artikuluan dio gutxiengoetako edo populazio indigenetako umeei bizitza kultural propioa edukitzeko, erlijio berezia praktikatzeko eta beren jatorrizko hizkuntza erabiltzeko eskubidea dutela. 1992ko Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean, sinatzaileek konpromisoa hartzen dute hizkuntza gutxitua irakaskuntzarako hizkuntza izan dadin, baina zehaztu



behar da konpromiso maila oso ezberdinak dituela gutunak.

Gutxiengo Nazionalen Hezkuntza Eskubideei Buruzko Hagako Aholkuak (1996) ere etxeko hizkuntzan eskolatzea gomendatzen du, eskolatzearen maila guztietara hedatua, eta estatuaren betebehartzat jotzen du irakasleak elebidun bihurtzea. [Unescoren Kultur Aniztasunari](#) buruzko Deklarazio Unibertsaleko 5. eta 6. puntuek honela diote:

"Gizateriaren hizkuntza ondarea zaintzea, eta adierazpena, sorkuntza eta hedapena ahalik eta hizkuntza gehienetan sustatzea; hizkuntza aniztasuna hezkuntzako maila guztietan, ahal den leku guztietan, bultzatzea —ama hizkuntza errespetatuz—, eta haurrek ahalik eta gazteen direla hainbat hizkuntza ikastea sustatzea". Nabarmenezkoa da, nolanahi ere, gehiago direla diskriminazio eta bazterketa eragozten eta zigortzen dituzten eskubide negatiboak, aitortza eta babesa bermatzen dituzten eskubide positiboak baino.





IRAKASKUNTZAREN EGOERA MUNDUAN

Baina, nolakoa da benetako egoera? Unesco Etxearen [Hizkuntzen mundua izeneko txostenean](#) (2005) munduko 800 hizkuntzari buruzko informazioa bildu zuten galdetegi baten bidez. Bertan pilatutako datuetatik ondorioztatzen da munduko hizkuntzen herenak ez duela inolako sarbiderik hezkuntza sisteman. Laurdena, berriz, soilik eskolaurrean edota eskolatzearen lehen urteetan erabiltzen da. Hainbat eskualdetan, legeak baimentzen du hizkuntza hezkuntza sarean erabiltzen, baina praktikan, eskolatik kanpo geratzen da hizkuntza hori. Eta badira garai batean eskolan erabili bai baina gaur egun erabiltzen ez diren kasuak ere. Hezkuntzan inolako sarbiderik ez duten hizkuntzen kasuan, komunitatean uste zabalduta izan ohi da hezkuntza soilik hizkuntza batzuen bidez jaso daitekeela. Soilik hizkuntzen %12 erabiltzen da hezkuntza sistema osoan, eta hizkuntza gutxitu gehienak kopuru horretatik kanpo daude. Beste %7 ahoz bakarrik erabiltzen da eskolan, eta eskolak irakasten duen hiz-

kuntza nagusia ikasi bitartean bakarrik. Helburua, beraz, ez da haurrek etxetik dakarten hizkuntza eskolan ere gartztea, baizik eta eskolan irakasten den hizkuntza berenganatzea.

Egia da, egia denez, hizkuntza gehienek eskolarik gabe iraun dutela, eta hizkuntza batek ez diola hizkuntza izateari utziko hezkuntzan ez erabiltzeagatik. Egia da, era berean, eskola ez dela hizkuntza ikasteko tokirik garrantzitsuena, lagunartekoa eta familia erabilgarriagoak eta eraginkorrak direla, baina kultura transmititzeko, prestigioa emateko eta hizkuntzari berari estatus goragoko bat emateko tokia da eskola. Eta gaur egungo gizartean, funtsezkoa, bizirik eta sendo irauteko.

Egia da hainbat komunitatetan ez dutela begi onez ikusten eskola, instituzio gisa. Asimilatzailetzat jotzen dute. Norbere kultura eta komunitate zentzuaren aurkakotzat. Baina egia da, era berean, komunitate gehienek garrantzitsutzat

jotzen dutela beren hizkuntza eskolan sartzea. Hizkuntza gutxitudun komunitateen hizkuntza eskubideak bermatzeko herrialdea kulturalki aberatsago egin dezake.

Irakaskuntza ereduak

Zein dira eredu nagusiak? Nola irakasten da hizkuntza bat eskolan? Alegia, ohiko hizkuntza nagusiaz gain, nola ikasten dute munduko haurrek beste hizkuntza bat, dela berea, dela bigarren hizkuntza, eskolan?

- Alde batetik, **azpiratze programak** daude. Eredu horien helburua da haurrek soilik eskolako hizkuntza garatzea eta, aldi berean, etxekoa baztertzea. Gisa honetakoak dira Hego Amerikan edo Erdialdeko Amerikan gaztelania hutsez eskolatzeko programak. Programa hauetan, hizkuntza gutxitudun haurrak eta hizkuntza handidunak nahasten dira, nahiz eta hainbat kasutan hizkuntza gutxitudun hurrekin aparteko eskola saio bereziak egin ohi diren. Hizkuntza nagusia lantzen da ikasle guztiek hizkuntza hori etxetik ekarriko balute bezala, kontuan hartu gabe horrek ikasleak eskolatzeko oztoka dezakeela, homogeneotasuna eta batasuna bilatzen duten ereduak direlako.

Sistema honek ondorio kaltegarriak dakarkio haurren hizkuntza garapenera, eta eskola porrota eragiten dio, maiz, hizkuntza gutxidun haurrari, ez dagoelako haren hizkuntza gaitasuna hobetu edo garatzeko inolako plangintzarik. Ondorioz, gizarte bazterketa hedatzen du, eta hizkuntza handiaren transmisioa errazten du, hizkuntza gutxituarenaren kalterako. Maiz, hizkuntza gutxitudun gurasoei ez zaie haurrak eskolatzeko beste aukerarik eskaintzen, eta ez zaie epe luzeko ondorioei buruzko informaziorik ematen.

- **Trantsizio programak** dira beste eredu bat. Helburu nagusia da haurrek hizkuntza nagusia ikastea. Eskolaldiaren hasieran, gelan etxeko hizkuntza gutxitua erabiltzen uzten zaie hurrei, baina hizkuntza nagusian trebatzen joan ahala, hizkuntza gutxituari emandako lekua eta tratamendua murriztu egiten dira. Atzean dagoen helburua da haurrek lehenbailehen hizkuntza nagusia menderatu behar dutela, hori hurrei gizartean aukera-berdintasuna bermatzeko bidea delakoan. Estatu Batuetan oso hedatuta dagoen eredu da, gutxiengo indiarren kasuetan zein etorkinak dituzten taldeetan. Kasu batzuetan, haurren etxeko hizkuntza Lehen Hezkuntza ia osoan erabiltzen da, baina ohikoena da hizkuntza trantsizioa lehenago ematea. Irakasleak elebidunak izaten dira, eta hizkuntza nagusirantz bultzatzen dituzte haurrak poliki poliki. Prestigioa-



ren gaineko mezuak sotilki bidaltzen dira eredu honen bidez: zuzendariak eta agente mailakoak, ingelesdunak dira; sukaldariak edo garbitzaileak, berriz, hizkuntza gutxitudunak.

- **Iraupen programak.** Helburua etxeko hizkuntza gordetzea eta haurrek hizkuntza nagusia ikastea da. Hau da, hizkuntza gutxitua mantentzen da, esate baterako irakaskuntzan ere erabilia, baina haurrek hizkuntza nagusia ikasiko dutela bermatuta. Horrelako ereduak aurki daitezke Euskal Herrian —euskara nagusi den inguruetan—, Kanadan, Estatu Batuetan —navajo eta gaztelania bidezko hezkuntzaren kasuan—, Galesen, edo Zeelanda Berrian. Horrelakoetan, komunitatearen hizkuntza gutxitua nahikoa hedatua egon ohi da, eta

Hizkuntza berreskuratzeko nahi argia dagoen eskualdeetan hizkuntza murgiltzeko programak dira hedatuenak eta erabilienak

komunitatearen ohiko hizkuntza izan ohi da. Hizkuntza nagusia ez da kalteua ateratzen, eta komunitate txikiak giza eskubideak bermatzeko modu bat da.

- Hizkuntza gutxitudun haurrak eta hizkuntza nagusidun haurrak bi hizkuntza horietan eskolatzen dituzten programak **murgilketa bikoitzeko programak** deitzen dira. Helburua haur guztiek bi hizkuntzak ikastea da. Hau da, hizkuntza gutxitudun hau-



rrek euren hizkuntza mantentzeaz gain, hizkuntza nagusia ikastea, eta hizkuntza nagusidun hurrek hizkuntza gutxitua ere ikastea. Irakasleek bi hizkuntza menderatzen dituzte. Kasu askotan, erdiz erdi banatzen dira eskola orduak, edo hizkuntza gutxituari pisu gehiago ematen zaio, baina ezaugarri nabarmenena da banaketa garbia proposatzen dela bi hizkuntzen artean. Horrelako ereduan, litekeena da egun batzuetan hizkuntza bat erabiltzea, eta besteetan, berriz, bestea. Irakasleek ez dituzte bi hizkuntzak nahasten. Curriculumean ere hizkuntzen arteko banaketa egin daiteke, alegia ikasgai batzuk hizkuntza batean bakarrik, eta beste batzuk beste hizkuntzan bakarrik. Murgilketa bikoitzeko eredua ez da oso ohikoa, hizkuntza nagusidun komunitateek ez baitute hizkuntza gutxitua ikasteko joerarik edo interesik izaten. Boli-

vian edo Hego Afrikan egin izan dira horretarako saiakerak, baina ikuspegi nagusia, gaur egun, oraindik kontrakoa da: hizkuntza gutxituko komunitateek ikasi behar dute hizkuntza nagusia.

- **Murgilketa programak** ikasleak etxeko hizkuntzan ez baizik eta bigarren hizkuntzan eskolatzen dituzten programak dira. [Ikaslearen etxeko hizkuntza balioetsi](#) eta babestu egiten da, helburua ez baita etxeko hizkuntza bazterrean uztea, ezpada etxekoa zein eskolako ikastea. Ikasgaiak bigarren hizkuntzan ematen dira, eta etxeko hizkuntza ikasgai moduan irakasten da. Irakasleak elebidunak dira, eta curriculumari dagokionez, lehen hizkuntzaren curriculumara bera izaten du murgilketak. Gurasoen nahia eta erabakia ezinbesteko baldintza da, noski, haurrak

etxekoa ez duten hizkuntzan eskolatzeko eta murgilketa bidez hurrek bigarren hizkuntzan egindako lorpenak modu positiboan baloratzen dira, ez bakarrik haurraren etxean, baizik eta, oro har, gizarte osoan. Eredu honen jatorria Montrealeko (Quebec, Kanada) Saint Lambert eskolan dago. Han, 60ko hamarkadan, etxetik ingelesdun ziren haurrak frantsesez eskolatzen hasi ziren, eta elebitasuna eta eskola arrakasta bermatzen zela ikusirik, mundu osoan zabaltzen zen haren sona. Eredu honek garapen elebiduna du helburu, eta hori funtsezkoa da bere arrakasta ulertzeko. Ez dago hausturarik etxeko hizkuntza eta kulturaren eta eskolakoaren artean. Eredu hau martxan jarri zen inguruan, bi hizkuntzak, ingelesa eta frantsesa, prestigiodunak ziren, hizkuntza nagusiak nolabait esanda, baina Euskal Herriko kasuak erakutsi du hizkuntza gutxituen kasuan ere emaitza onak lor daitezkeela. Horregatik, esan izan da murgilketa bereziki eraginkorra dela hizkuntza handiekin harremanetan dauden hizkuntza gutxituen transmisioa bermatzeko. Eredu hau martxan jartzea benetako erronka da komunitateentzat, irakasleen hizkuntza prestakuntza edo material didaktikoen sorkuntza ez direlako inola ere egun batetik bestera lortzen.

Ereduen ondorioak eta baliagarritasuna ulertzea garrantzitsua da komunitate batek erabaki dezan zer motatako hezkuntza nahi duen bere seme-alabentzako, baina garbi esan behar da hasieratik:

gutxituta egotera iritsi den hizkuntza berreskuratzeko gizarte nahi argi eta garbia duten munduko eskualdeetan, hizkuntza murgiltzeko programak dira hedatuak eta erabilienak. [Horrek ez du esan nahi toki](#) eta egoera guztietan berdin egin behar denik. Graduazio guztiak egin daitezke, egoera guztiak kon-tuan hartuta: a) jatorrizko hizkuntza galdu dutenak eta berreskuratu nahi dutenen kasuan; b) jatorrizko hizkuntza gordetzen dutenen kasuan; edo d) talde mistoen kasuan. Hau da, sistema hau tokian tokiko egoeren arabera moldatu eta doitu daiteke.



EUSKAL ESKOLARANTZ

Euskal Herrian berebiziko garrantzia izan du euskal eskolaren aldeko mugimenduak, eta euskara eta euskal kultura berreskuratu eta gizarteratzeko borroka erdian dago ahalegin hori. Muina da. Irakaskuntzan egin diren urratsei esker, eten egin da hiztunen galera, eta milaka lagunek ikasi dute hizkuntza. Gaur egun, euskaraz ikasten dute lehen aldiz matrikulatzen diren haur gehienek, zonaldearen arabera. Horrek hiztun kantitatea ekarri dio hizkuntzari, kopurua.

[Baina egoera soziolinguistikoa](#) askotarikoa dago Euskal Herrian: inguru euskaldun samarrak, inguru erdaldun erabatekoak, inguru mistoak. Horrek aldaera asko sortzen ditu erabilerari dagokionez, eta gaur egun, hiztun horien hizkuntza erabilera da kezka nagusia, eskolak ez baitu ziurtatzen hiztun horiek hizkuntza erabiliko dutenik eskolatik kanpo. Nolanahi ere, ezinbestekoa da ikustea euskararen berreskurapenaren aldeko bide hori nola egin den. Oraindik gaur egun bide hori egin behar den lehena dela ikusten dutelako askok. Hortik abia-

tu behar dela edozein berreskurapen prozesu. Horretarako, euskaraz ikasteko hainbat gurasok 1960tik aurrera bultzatu zuten ikastolen esperientziari begiratuko diogu, alde batetik. Bestetik, 1980tik aurrera, bertako erakundeek, bereziki Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, eskoletan euskarazko eredu publikoak ezartzeko egindako lana aztertuko dugu.

Ikastolen sorrera

[Euskal Herrian, 60ko hamarkadaren hasieran](#), hizkuntzaren eta kulturaren aldeko mugimendu handia piztu zen, besteak beste intelektual eta eragile askok ohartarazi zutelako neurriak hartu ezean hizkuntzaren egin zuela. Ofizialtasunik gabe, debekatuta eta jazartuta, hizkuntz kontzientziarik gabe, euskarak ez zuela berrogei urte ere iraungo. Transmisioa ziurtatu beharra zegoen, baina

ez hori bakarrik. Hizkuntzaren ezagutza zabaldu beharra zegoen, hirietara iritsi behar zuen. Nondik hasi? Hasieratik: irakaskuntzatik.

Aurrekaria bazegoen. 30eko hamarkadan, hainbat hiritan euskaraz ikasteko zentroak zabaldu ziren. Etxeetan ematen ziren eskolak ziren, ahozkoak ia, baliabiderik eta pedagogia berezirik gabe, liburuttoak eskuetan hartuta andereño batek sukalde txiki batean haur batzuk bildu eta euskaraz oinarritzko formazioa emateko. Esperientzia horrek hazi txiki batzuk erein zituen, eta 60ko hamarkadan berriro, diktaduraren debekuak debeku, klandestinitatean, gisa bereko hainbat ikastetxe zabaltzen hasi ziren Euskal Herri osoan. Lokal hutsetan, materialik eta irakasle prestaturik gabe, eta gurasoen ekimenei esker. Ahoz aho transmititu zen esperientzia izan zen, eta gurasoak izan ziren bultzatzaile nagusiak. Seme-alabak euskaraz hezi nahi zuen jendea, garaiko giro beroan murgilduta euskarazko irakaskuntzaren alde egitea erabaki zutenak. Hasieran gutxi batzuk. Ondoren, apurka apurka, gero eta gehiago. Euskara galbidean zegoen ikuspegia nagusi zen orduan, eta hizkuntza aurrera ateratzeko borondatea nagusitu zen hainbat girotan, bereziki industrializatutako guneetan.

Bigarren arrazoi nagusia beste heziketa bat bilatzeko gogoia izan zen. Garai hartan, diktadura frankistak ezarritako eredu zurrun ofiziala, edo ordena erlijiosoen kudeatutako heziketa eredu pribatuak ziren eskolatzeko aukera ia

bakarrak. Ikastolak bultzatu zituzten gurasoek beste eskola bat zuten buroian: berrikuntza helburua, ezberdina eta berria. Izenak berak sujeritzen du: ikasteko ola.

Orduko sortzaileetako batek esan zuen bezala: "Guri eskolan zer egin ziguten? Makilarekin jo euskaraz hitz egiteagatik, eta 'No hablaré en clase' ehun aldiz kopiatu behar. Ez genuen gure esperientzia gure umeentzat nahi, eta zerbait egin beharrek, ez genekien zer, eraman gintuen ikastola izango zena sortzera". Hirugarren eredu edo sarea nahi zuten, beraz, ikastola bultzatu zutenek.

Hautu pertsonalaren garrantzia

Ikastolen sorreran, beraz, hautu pertsonalak garrantzi handia eduki zuen: ametsezko eskola euskalduna, berria eta autoeratuia. Baina giroak ere zerikusi handia izan zuen. XX. mendeko 50eko hamarkadan zehar eta, batez ere, 60ko hamarkadatik aurrera, Euskal Herrian herri ekimen ugari martxan jarri ziren euskal nortasuna sustatu eta aldarrikatzeko: dantza taldeak, musika taldeak, euskara irakasten zuten taldeak, mendi taldeak... Kontzientzia hartze kolektibo

indartsu eta sendo bat zabaldu zen, diktadurari aurre egiteko eta herriari irtenbide bat emateko. Sare sozial bat sortu zen proiektuaren inguruan.

Egoera ekonomikoak lagundu zuen, noski. Garai hartan, industrializazio eta hiritartze prozesu handia bizi izan zuen herriak, eta horrek familia eta etxe askotako baldintza ekonomikoak hobetu zituen. Horregatik, hirietan osatu ziren lehen ikastolak. Hirietan, eta klase ertainak bultzatuta. Hirietan, eta abertzaleen taldeen aldetik. Baina ez abertzaleek soilik, herritik eta herrirako sorturiko eskola izan baitzen ikastola, inguruan jende eta sentiberatasun askoko eragileak bildu zituen. Euskara hutsezko eskola batek, eskola berria gainera, noiz eta diktadura baten erdian, kontsentsu eta indar asko eskatzen zuen, eta auzolana izan zen erabilitako bidea: gurasoak, irakasleak, langileak, herritar soilak, denak jarri ziren lanean amets hura aurrera ateratzeko. Eta dena egiteke zegoez, denek parte hartu ahal izan zuten proiektuan: lokala aurkitu eta atonduz, dirua lortuz, irakasleak bilatuz, sendi berriak konbentzitzen... auzolanean.

Nola egin zen dena? Hasierak askotariakoak izan ziren, baina gehienetan molde bera errepikatzen da. Seme-alabek euskaraz ikastea nahi zuten gurasoek herri edo auzo bereko beste guraso batzuen laguntza bilatzen zuten, eta, behin taldea eginda, lokala alokatzen zuten. Batzuetan, etxe bateko gela izaten zen. Ondoren, irakaslea bilatzen zuten. Gehienetan, herri edo auzo bereko

Hirietan osatu ziren lehen ikastolak, hirietan, eta klase ertainak bultzatuta, abertzaleen taldeen aldetik

neskatila izaten zen, andereñoa, prestakuntzarik gabea. Gurasoek hilero jartzen zuten kopuruari esker, diru bat ordaintzen zioten andereñoari, eta, batzuetan, lokalaren alokairua bera. Baina, askotan, ez zen iristen. Eta gurasoek ekitaldi ugari antolatu behar izaten zituzten: herriko jaietan txosnak jartzen, zozketak antolatzen, ekitaldi kulturalak atontzen... Esan behar da hau guztia alegaltasunaren mugan egiten zela. 1965ean legalizatu zuten lehen ikastola, Bilbon.

Ikastolak, gainera, eskola ulertzeko modu berri baten hasiera izan ziren. Gizartetik sortua, jabegoa ere ezberdina zen: gurasoak izan ziren eskola berriaren jabeak, eta haien parte hartzea ez zen mugatu dirua jartzera edo lokala aurkitzera. Heziketa prozesuan ere esku hartu zuten, haiek zeresanik zutelako materiala edo irakasleak aukeratzeko orduan. Esan behar da ikastolen esperientzia ahoz aho zabaldu zela hasieran, eta ikastola baten irekierak ekarri zuela beste bat ondoko herrian zabaltzea. Horregatik, aurreneko urteetan, ikastetxe bakoitzak bere bideari eman zion. 1970etik aurrera, berriro, zentroen arteko koordinazioa lortzeko urratsak egin eta, kooperatiba bilakatu ziren ikastola gehienak. Kooperatibak esan nahi zuen denak, gurasoak eta irakasleak, berdinak zirela ikastolan, erabakiak hartzeko or-

duan. Kolektibotasunaren ideia hori indartu egin zuen kooperatibismoak.

Hasieran, hiru urteko haurrekin jarri ziren martxan ikastolak, sexu bereizketarik gabe —garai hartako eskolan neska eta mutilak berezita zeuden geletan—, eta pedagogia arauturik gabe baina, era berean, ikuspegi pedagogiko berritzaileekin. Hezkuntza ez zen ikusten lau paretan artean gelditzen zen jarduera gisa, baizik eta haurraren ekintza orotan zegoen heziketa moduan. Buruz ikasteko prozesuaren orde, haurraren jakin mina piztea zen helburu nagusia. Irakaslea protagonista eta ikaslea objektu hutsa izatetik, haurra hezkuntza prozesuaren subjektu eta ardatz bilakatu zen. Horrela, jolasak, kankak, irteerak eta bestelako kultur ekintzak eguneroko bilakatu ziren ikastolan. Koordinazioa landu eta hobetu ahala, irakasleen arteko harremanak ugaritu ziren, baina hasieran, esan daiteke autonomoki garatutako ereduak nagusitu zirela ikastetxe bakoitzean.

Euskaraz ikasteko eta euskara ikasteko eskola zen ikastola. Guraso euskaldunek haurrak etxeko hizkuntzan hezteko proiektua. Baina ikastola fenomeno hiritarra izan zen, eta Euskal Herriko hirietan gaztelaniaren presentzia oso handia zen, eta da. Hori dela eta, gero eta gehiago, euskararen alde zeuden familia gaztelaniadunak haurrak ikastoletan izena ematen hasi ziren. Hori erabat naturala izan zen hiri handietan —Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Donostia...—, baina ez hain naturala Gipuzkoa edo Bizkai barruko herrietan, eta erronka pedagogi-

koak mahaigaineratu zituen: berez, ama hizkuntzan ikasteko eskubidea defenditzeko sortutako zentroetan bi abiadurako irakaskuntza sortzen zuen, etxetik euskara ekartzen ez zuten haurrek ezin zutelako hizkuntza haur euskaldunek bezala ikasi. Horrek erantzun pedagogikoak eskatzen zituen.

Pedagogia

Hain zuzen ere arlo pedagogikoa izan zen ikastolen hasierako kezka handienetako bat, ikastolak ez zirelako sortu euskara berreskuratzeko soilik. Euskal nortasuna landu eta haren kontzientzia berreskuratzea zen gurasoen asmo nagusietako bat, eta euskal usadioen berreskurapena eta euskal kulturaren zabalkundea asmo zentralak ziren. Andereñoak edo lokalak ordaintzeko diru bila hasi zirenean, beraz, bertako jaiak berreskuratuz edo sustatuz egin zuten, eta herriko ekitaldietan parte hartuz, tokian tokiko dinamika kultural eta sozialaren bilgune bilakatu arte.

Baina ez ziren hasiera errazak izan. Etxe azpiko lokaletan, bertako apaizek utzitako geletan, lagunen garaje edo sotoetan altxatu ziren lehen ikastolak. Handik eta hemendik bildutako aulki eta mahaiekin hornitu ziren gelak. Inolako laguntza ofizialik gabe, traba askorekin. Ikastoletako arduradunek, hasieratik, tirabira ugari eduki zituzten hezkuntza ikuska-

riekin, ikastoletako haurren formazioa balioets zezaten eta haurren titulazioa onar zezaten. Ikastola batzuetan sei urte egin arte ikasten zuten haurrek, beste batzuetan bederatzi urte bete arte. Ondoren, eskola ofizialetan hasi beste erremediorik ez zuten, eskola agiria lortu nahi bazuten. Hainbatetan ez ziren haurren izenik edo zenbakiaren berri eman, ikuskariengandik ihes egiteko. Beste batzuetan, eskola ofizialeko irakasleek beraiek salatu zituzten ikastolak. Baina bidea egiten joan ziren.

Klaseak euskaraz emateko moduko irakasle gutxi zegoen orduan, eta praktiken bidez formatutako andereñoekin egin behar izan zuten aurrera. Gizarte segurantzarik gabe eta soldata txikiarekin, ikastolaren alde lan militante handia egin zuten. Andereño horiek beraiek osatu behar izan zuten eskolarako lehen materiala. Fitxak ziren, eskuz hartutako oharak, gero makinaz idatzita. Norberak lortutako liburuekin.

Gabezi horiek leuntzeko, 1964an Joanes Etxeberri Hezitzaileen Eskola zabaldu zen Donostian, andereñoei formazio osagarria emateko. Euskara eta literatura, herriaren ezagutza (historia, geografia, antropologia...), haurra eta bere ingurukoa (pedagogia eta metodologia) eta eskolari buruzko ezagupenak ematen hasi ziren han. Lehen urtean, bederatzi andereño egon ziren. Handik hamar urtera, 45 izan ziren.

Hori ez zen nahikoa, noski, eta ikastoletarako eredu pedagogikoen bila, Katalu-

niako esperientziari eta Celestin Freinet pedagogo frantziarraren ereduari begiratu zioten ikastolek. Kataluniakoekin trukaketa pedagogikoa egin zuten. Freineten pedagogiaren helburua, ikaslea subjektua bihurtzea zen: metodo zurrunen alboan, metodo askeak. Ikastolen izaerarekin oso bat zetozen.

Ikas materiala

Ikastolen sendotze horretan, irakasleek berehala antzeman zuten materiala zela konpondu beharreko arazoa behinengotako bat. Sortu behar zela eskola eredu



berrirako liburuak eta, orokorrean, material pedagogiko egokia. Hasieratan, **Xabiertxo** zen euskarazko liburu bakarra, irakurketetarako testu liburutto bat, 1925ean lehen aldiz argitaratua zena. Asko erabili zen, baina ez zen oso ondo egokitzen garai berriekin. Erlijiotasunari aipamenak zirela eta, edo naturaren aipamen esentzialistak zirela kausa, ez zen material egokiena beste zerbaite eskaini nahi zuen eskola batentzat. Beraz, testu liburuak nola landu, zein eredu hartu, zeren arabera argitaratu, kezka bizia izan zen garaiko ikastola sustatzaileen artean. Nolako materiala sortu ikasleek ikas zezaten.

Ikastolak eskola ulertzeko beste modu baten hasiera izan ziren: gurasoak izan ziren eskolaren jabeak, eta parte hartze handia izan zuten.

Pedagogia arloko erronka horri irakasleek erantzun zioten. 60ko hamarkadaren amaieran, haietako hainbat bildu, eta **Gordailu** elkarteak eratu zuten. Pedagogia eta didaktika lantzea zen helburua, eta liburuak sortzen hasi ziren. *Ikastola hiztegia* argitaratu zuten lehendabizi, euskarak behar eta oraindik ez zituen termino zientifiko edo teknikoak sortzeko ahalegin garrantzitsua. Ondoren, *Ikastola Liburutegia* argitaratzen hasi



ziren: Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Kotsultarako liburuak ziren, ez ikasliburuak, Gordailuko jendeak pedagogia aktiboa aldarrikatzen baitzuen, hau da, irakaskuntza praktikoa: haurra izan dadila bere hezkuntzaren protagonista. Irakasle haiek uste zuten ikasleak ez zuela testu libururik behar, ikasliburua osatu behar zuela material eta iturri ezberdinetara joz. Ikaslearen autonomia bilatzen zuten, ekimena piztea, eta irakaslea bitartekaria baino ez zen. Irakaslearen nagusitasunaren eta ikaslearen pasibotasunaren aurkako hezkuntza eredua zen helburua.

Asmoa aurrerazalegia zen beharbada, irakasleak ere ez zeudelako prest gisa honetarako irakaskuntzarako, eta, handik urte batzuetara, "benetako liburuak" behar zirela pentsatzen hasi eta ikastolek argitaletxe handien testu liburuak itzultzeari ekin zioten, homologarritasunaren bila. Ikasliburu horiek arazo bat zuten ordea: Euskal Herritik kanpo ekoizten ziren, eta ikastolek planteamendu pedagogiko berezkoa nahi zuten. *Saioka* proiektua jaio zen orduan, ikastolei curriculum osoa eskaini nahi zien proiektua.

Saiokaren oinarritzko planteamendu pedagogikoa zen ikasleari ez zaiola *irakasten*, ikasleak *ikasi* egiten duela ekin-tzaren bitartez. Talde giroan lan egitea zen helburua, ikaslearen gaitasun kritikoa handitzeko. Material aurrerakoia zen, euskara batuan idatzia, eta askotan arazoak izan ziren irakasleen artean, terminologia sortu behar zelako eta termi-

nologia hori arrotza egiten zitzaiolako askori, baina metodologia zegoen aurreneko aldiz, planteamendu orokorra, eta horri esker *Saiokak* aurrera egin zuen, eta arrakasta izan zuen.

Metodologia honek irakaslearen parte hartze eta konpromiso handia eskatzen du, eta, ondorioz, prestakuntza handia ere bai. *Saiokako* egileek beraiek ematen zituzten formazio ikastaroak. Irakasleak beraiek izan ziren protagonista nagusiak. Askotan, haiek sortu zituzten materialak, bakoitzak bere erara, bere beharren arabera. Nork bere ekarpena egiten corpus nagusiari. Urrats txikiak izan ziren, baina ezinbestekoak eta, horregatik, erraldoiak. Gela haietan izandako esperientziei esker, euskara tekniko eta berezitua hazten hasi zen.

Irakaskuntza publikoan ere bai

70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, hazkunde handia gertatu zen ikastoletan. Ia herri eta eskualde guztietan ireki ziren ikastolak, gero eta matrikulatze kopuru handiagorekin, gero eta planteamendu pedagogiko sendoekin, gero eta irakasle prestatuagoekin eta, ondorioz, gero eta baliabide gehiagorekin. Baina ikastola gehienak guraso eta irakasle kooperatibak ziren, eta ikasleen %10 baino ez ziren bertan eskolatzen.

Irakaskuntzarekiko kezka, baina, askoz zabalagoa zen. Euskara bultzatu eta aitzinatzeke zein neurri hartu behar ziren galdetuz gero, garai hartako gehiengo nagusiak "eskola" esango zuen. 70eko hamarkadan, gainera, euskaldun berrien fenomenoak piztu zen. Ez zen berria, Euskal Herrian beti egon dira euskara ikasi eta euskaraz bizitzera iritsi diren norbaitak, baina garai hartan, herri mugimenduaren baitan sortutako alfabetatze mugimenduei esker, milaka lagun euskaldundu ziren. Elebidun aktiboak ziren, kontzienteki euskaldundutako jendea, ahoz ez ezik idatziz ere euskaraz jarduten zutenak, eta kulturgintzan ekarpen oso garrantzitsuak egin zituztenak. Denetarako nahi zuten euskara, konplexurik gabe. Baita irakaskuntza publikoan ere. Euskaldun berriek eragin sinboliko handia izan zuten, gainera: ama hizkuntza erdara zuten helduak gai baldin baziren euskara menperatzeko, irakaskuntzan dena zen posible.

Ez dira ahaztu behar ikastolek zituzten oztopoak eta traba ofizialak. Urratsak urrats, euskaraz ikasteko baimen ofizial bateratu eta orokorrik ez zegoen artean, eta, maiz, ikasleak ondo hartzeko erakuntza egokirik ere ez; irakasleen soldatak txikiak ziren, diru laguntza ofizialik ez zegoen, irakasle nahikorik ere ez. Ikasmateriala bidea egiten ari zen oraindik. Dena egiteke zegoen, eta hasierako kemenak bultzatzen zituen, oraindik, ikastolak: autogestioa, hierarkiarik eza eta funtzioen banaketari esker. Ikastolak, gainera, euskararen etxea ziren haur askorentzat: hor zuten hizkuntzarekin

harreman nagusia, edo bakarra. Irakasleak, garbitzaileak, zuzendariak, langileak, dena euskaraz egitea bilatzen zen, eta hori oso garrantzitsua izan zen.

Ikastolek hasitako bide hura izan zen 80ko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzak osatu zenean, irakaskuntza publikoan ere nahi eta errealtate horri erantzun bat ematera bultzatu zuena. Eta hizkuntzen ereduen sistema lantzen hasi zen. 1983an Parlamentuak onartu zuen legearen arabera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako haur guztiek euskara eta gaztelera jakiteko eta ikasteko aukera bermatuta eduki behar zuten eta, horretarako, hezkuntza elebidunaren oinarriak ezarri ziren: A, B, eta D ereduak. A ereduan, irakasgai guztiak gaztelaniaz landuko ziren, euskara bera salbu. B ereduan, gaztelania eta euskara izango ziren ikasgaiak lantzeko hizkuntzak, eta D ereduan, azkenik, irakasgai guztiak euskaraz landuko ziren, gaztelania izan ezik. Helburua: 16 urteak betetzean ikasle guztiek euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten, irakurtzen eta idazten jakitea. Ereduen atzean, azken finean, ikasleen jatorri linguistikoari erantzuteko asmoa zegoen: A eredua etxetik erdaldunak ziren haurrentzako pentsatu zen; D eredua, haur euskaldunentzat, irakaskuntza osoa euskaraz egin ahal izateko; B eredua, azkenik, bi hizkuntzak berdintasun egoeran nahi zuten gurasoentzako ezarri zen.

Helburu hori erdiesteko oztopo nagusietako bat irakasle falta zen, 80ko hamarkadaren hasieran Euskal Herriko

irakasle gehienak erdaldunak baitziren. Eusko Jaurlaritzak irakasleak prestatzeko zentroa martxan jarri zuen, IRALE izenekoa, eta HUHEZI fakultateko Eskoriatzako Irakasle Eskolak ere lan handia egin zuen irakasleen prestakuntzan, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) bezala. Materialari dagokionez, berriz, laguntzak ematen hasi ziren euskarazko testuliburuak eta materiala sortzeko. Halaber, eskolatik kanpo erabilera bultzatzeko hainbat proiektu abiatu ziren: eskola antzerkigintza, eskola bertsogintza, euskal girotze barnetegiak, euskal idazleak eskoletara.

Ereduen sistema honekin ordura arte nahiko indartsua zen ustea hautsi zen: haur guztiak bere ama hizkuntzan eskolatu beharra dagoela. Quebecoko (Kanada) ereduarekin frogatutzat geratu zen hizkuntza biziberritzeko kasuetan ere, non eskolatzeko hizkuntza ez den ikasle guztien ama hizkuntza, emaitzak oso onak zirela. Hau da, bigarren hizkuntzan eskolatuta ere, haurren eskola emaitzak ez zirela txarragoak. Eta eredu hori beste toki batzuetan ezarri zenean —esate baterako, Euskal Herrian— emaitzak berretsi egin ziren: ikasleek ama hizkuntza ez zen hizkuntza ikasten zuten, eta garapen intelektual eta linguistikoa ez zen inola ere kaltetuta. Hortik aurrera, Euskal Herrian bederen, borroka izan da nola hobetu etxetik hizkuntza ekartzen ez zuten ikasleen euskara maila.

Hogeita hamar urteotan eskola publikoan hizkuntz ereduak egindako bidea handia izan da. Gaur egun, haur eskola-



tik unibertsitateraino ikas daiteke euskaraz. Kasu bakan batzuetan, ibilbide osoa egin daiteke euskaraz, goi mailako hainbat titulazio euskaraz osorik eskaintzen dituztelako Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak edo Nafarroako Unibertsitate Publikoak. Beste kasu batzuetan, ikasgai batzuk aukeratu daitezke euskaraz.

Baina ibilbideak, batez ere, garbi utzi du eredu bakoitzaren indarra eta egokitasuna.

- 1982an, A ereduaren ikasleen %80 eskolatzen ziren, eta gaur egun, kopuru hori ez da %20ra iristen. D ereduaren gorakada da eboluziorik azpimarragarriena: lehen aldiz matrikulatzen diren **neska-mutilen %60tik gora D ereduaren** matrikulatzen dira gaur egun. Sektore publikoan, %80ra iristen da portzentaje hori.
- Urte hauetan guztietan gizartea ohartu da murgilketa eredu, alegia D eredu, dela haurrak eskolatzeko eredurik egokiena. Datuek erakusten dute soilik **murgilketa sistema** batean eskolatutako haurrak direla gai bi hizkuntzetan moldatzeko, eta eredu hori dela **euskalduntzen laguntzen** duen bakarra. A ereduak, berriz, ez du balio bigarren hizkuntza ikasteko: eredu horretan ikasten duten haurrek ez dute hizkuntza profilak zehazteko azterketa gairatzen.
- D ereduaren arrakasta esperientziak berak ziurtatu du gainera, frogatuta geratu baita haurrek **hobeto ikasten dutela hizkuntza dosi handietan** hartuz gero. Hau da, askoz hobeto ikasten dutela bigarren hizkuntza hori, baldin eta eskolaldiaren zati handi bat haren bidez ikasten badute. Eta ama hizkuntza, gainera, ez dutela galtzen. Jakina, egoera ez da bera hizkuntza nagusia ama hizkuntza baldin bada. Ama hizkuntza gaztelania duten haurren kasuan, bigarren hizkuntzan eskolatzeak ez dio hizkuntza nagusiari traba egingo, gizartean, etxean, administrazioan, estatusa ziurtatuta

daukalako. Hori begi-bistakoa da esaterako Euskal Herrian. Alderantziz ez da berdin gertatzen. Hizkuntza gutxitudun haurrak hizkuntza nagusian eskolatzen badira, ama hizkuntzaren narriadura eta galera oso indartsua izan ohi da.

- Gainera, emaitzek erakusten dute soilik murgilketa ereduak ziurta dezaketela jatorrizko hizkuntzaren aldeko emaitza positiboa. Euskal Herriko esperientziak frogatu du **euskara ikasgai gisa** ikasten duten haurrek —gaztelaniaz gehi euskara ikasgai gisa— ez dituztela emaitza hobeak lortzen, alderantziz baizik: euskara **ez dute ikasten**. Alegia, murgilketa eredu dela euskaldun eleanitzak sortitzakeen bakarra.

Amerikako estatu askotan lege onartuta dago bertako hizkuntzetan ikasteko aukera. Irakaskuntza elebidun eta kulturartekoa deitu ohi zaio. Baina irakaskuntza horren porrota berretsi dute eragile askok. Hainbat eskualdetan, esaterako Ekuadorren, Guatemalan edo Kolonbian, irakaskuntza mota hori benetako ghettoak bilakatu dira, astean hainbat ordu bertako ohiturez eta hizkuntzaz hurrei klasea emango zaien aitzakiarekin gela horietan soilik jatorrizko haurrak biltzen direlako, eta irakasleak nagusiki erdaldunak direlako. Haurrek, azkenean, ez dute etxeko hizkuntza hobetzen, eta irakaskuntzaren kalitatea eskasa da oso. Azken finean, espainolerako trantsiziozko irakaskuntza baino ez da, pedagogiarik gabea, baliabiderik gabea, motibazio-

rik gabea. Ondorioz, irakaskuntza txarra bada, gurasoek nahiago izaten dute umea eskola orokorrean hezi.

Nafarroan ere eskola publikoan euskarazko irakaskuntza ezartzeko atea zabaltzen ziren 1986an Euskararen Legea onartu zenean, baina gaur egun D ereduaren ikasten duten haurren kopurua ez da %25era iristen, lurraldea hainbat zonan banatuta dagoelako, hezkuntzari buruzko politika ezberdinekin, eta administrazioak ez duelako benetako kanpainarik egin euskalduntzea eragiteko. Ipar Euskal Herrian, egoera are latzagoa da. Ikastolek sustatutako ereduak da, praktikan, euskaraz ikasteko bide bakarra.

Haur erdaldunak nola euskaldundu

Eskola publikoan euskara ezartzen hasi zenean, [ikastola batzuk publiko bilakatu eta sare publikoan](#) sartu ziren, baina gehienek izaera kooperatibo eta autokratua izateari eutsi zioten. Horrek ereduak buruzko eztabaida zabaltzen zuten. Lerro publikoak, teoriak, etxeko egoera ezberdinei erantzuna emateko sortu ziren: A ereduak erdara etxetik zekarten haurrentzako, eta D ereduak, berriz, haur euskaldunentzat. Esperientziak eraku-

tsi bazuen ere murgilketa zela etxetik euskara ekartzen ez zuten haurrentzako egokiena, ikastolek, garai hartan, gogoeta egitea erabaki zuten, galdera berari erantzun pedagogikoa eman ahal izateko: nola egin etxetik euskara ekartzen ez duten haurrak hobeto euskalduntzeko? Orduan, ikastoletan bigarren hizkuntzaren metodologia berri bat jarri zuten abian, **Haurtxoa** izenekoa.

Haur guztiak ahalik eta denbora gehien euskaraz bizitzeko asmoan ez zen atzerapausorik egin, eskolan ematen zuten denboraren %80 gutxienez euskaraz behar zuten, baina hizkuntzaren tratatari dagokionez, garapen edo mailaketa ezberdinak ezarri ziren: ama hizkuntza erdara zuten haurrentzako askoz ere prozesu progresiboa izango zen, gero, lehen hezkuntzara 6 urterekin iristean, denak maila berean eta elkarrekin aritzeko. Hori zen **Haurtxoa** proiektua: ikasmaterial berria, arlo guztietarako, baina euskarari dagokionez era batekoa jatorri euskalduna zuten ikasleentzat, eta beste batekoa erdaldunentzat. Bi abiadurako hizkuntza irakaskuntza.

Proiektua bost ikastolatan jarri zen martxan, eta, handik lau urtera, ehunetik gora ikastetxetan ezarri zen. Proiektua eskola publikora ere zabaltzen zen, eta 1990-91 ikasturtean, hamar mila ikasle inguruk erabili zuten materiala.



CURRICULUMA

Ikas materiala da edozein hezkuntza proiektu martxan jarri nahi dutenek erabaki behar duten lehen gakoetako bat: nolako materialarekin lan egin nahi duten —ahozkoa izango den, idatzizkoa, mistoa—, ze parte hartze izango duten irakasleek —jakintza transmisore hutsak izango diren, edo hezitzaile—, ze eredu-ri begiratuko zaion. Baina horretarako, ezinbestekoa da erabakitzea zer erakutsi behar zaien haurrei. Beste era batera esanda: zeintzuk diren derrigorrezko hezkuntza bukatzean 16 urteko gazte batek gutxienez ezagutu behar dituen gertaera eta kontzeptuak, egiten jakin behar dituen prozedurak eta lortu behar dituen trebetasunak, eta bereganatu behar dituen balioak eta jarrerak. Hau da, zer den eskolak komunitate bateko neska-mutilei ziurtatu behar dien gaitasun-eduki-trebetasun multzoa. Honela ere esan daiteke: zein den belaunaldi batek hurrengoari igorri nahi dizkion ohitura, ikusmolde, uste eta sinismen eta jokabide multzoa. Horri curriculuma esaten zaio. Irakaskuntzaren azken helburua hor laburbiltzen eta trinkotzen da.

Jakina, hau da irakaskuntza eredu bat antolatu nahi duen ororentzat lehen urratsa, baina Euskal Herrian ez zen hortik hasi. Curriculuma lerro publiko-

ko hizkuntza ereduak martxan jarri eta gero lantzen hasi zen, eta ikastolak askoz lehenago abiatu ziren. Kezka pedagogikoak eta curriculumari dagozkion guztiak ondoren etorri ziren. Beharbada, ez zen beste alternatibarik: curriculum baten inguruko adostasun gutxieneko bat ezinezkoa izango zen ikastolak martxan jarri ziren garaian, eta, horren zain egon izan balira, beharbada une honetan ez ginateke liburu hau idazten egongo. Beharbada ez zegoen beste biderik, eta beharbada hori da ikasgaia: herriaren edo gizarte baten gogo eta kementa egonez gero, nork bere bidea asmatu dezakeela.

Curriculumari dagokionez, UNESCOk berak zehaztuta dauka hezkuntzaren eginkizun nagusia gizabanakoaren garapena bideratzea dela, beti ere gizartean txertatuta, eta hezkuntza kulturen eta baloreen eramailea dela, gizarteratzeko bidea beraz. Horregatik, 1996ko Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aitortzen dio hizkuntza komunitate orori norbere kultur ondasunaren (historia eta geografia, literatura eta kultura adierazpide oro) ezagutza sakona hartzea ahalbideratuko duen hezkuntzarekiko eskubidea. Hau da, komunitate bakoitzak erabaki dezakeela bere seme-alabek,



etorkizunean komunitate hori gidatuko dutenek, zer ikasi behar duten eskolan.

Jakina, gizarteak ez dira testuingururik gabeko egoeratan garatzen, kultur eta historia testuinguru jakin baten barruan baizik, eta bertako errealitateari leku garrantzitsua aitortzea jo behar du irakaskuntza sistemak. Ez da ahaztu behar hizkuntza etxean eta familia giroan ere ikasten dela, auzoan eta lagunartean, eta hor gertatzen dela transmisio lehen eta hurbilenekoa. Eskola izan daiteke kultur eta hizkuntza aniztasuna errespetatu eta sustatzeko tresna bat, eta hor du curriculumak garrantzia. Nazioartean onartuta dagoen definizioaren arabera, curriculumak hezkuntza ezagutzaren lau zutaberi erantzun behar dio: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea.

- Ezagutzen ikastea, hau da, behar besteko kultura orokor eta zabala edukitzen ikastea, eta gai gutxi batzuetan ezagutzak sakontzeko aukera izatea. Horrek ikasten ikastea eskatzen du, bizitza osoan zehar iraungo duen hezkuntzak eskaintzen dituen aukerez baliatzeko.
- Egiten ikastea ere erakutsi behar du eskolak, eta ez bakarrik kalifikazio profesionala eskuratzeko, baizik eta gizabanakoa egoera askori aurre egiten eta taldean lan egiten trebatuko duen gaitasuna eskuratzeko.
- Elkarrekin bizitzen ikastea ere bada eskolaren zeregin nagusienetako bat, bestea ulertzea eta elkarrekiko hartu emanak garatuz —egitasmo komunak burutu eta gatazkak aztertzeke trebatu—, pluralismoa, naturarekiko errespetua, elkar ulertzea eta bake baloreak errespetatuz.
- Izaten ikasi behar da, azkenik, norberaren pertsonalitatea hobeto azal dadin eta gero eta autonomia, iritzia izateko eta ardura pertsonaleko ahalmen handiagoarekin aritzeko gai izateko. Horretarako, hezkuntzan ez dira gutxietsi behar gizaki bakoitzaren ahalmenak: oroimena, arrazoimena, zentzu estetikoak, gaitasun fisikoak, komunikatzeko gaitasunak... Baita ere, lurraiekiko errespetua.

Hezkuntza, beraz, ez da bakarrik ezagutzak jasotzea, baizik eta gauzak egiten, batera bizitzen eta norberak autonomiaz

jokatzen ikastea. Norbere komunitateko nortasun ezaugarri soziokulturalek, horregatik, aipamen esplizitua behar dute curriculumaren diseinuan. Pedagogiaren egiteko nagusia, hain zuzen ere, gizarte egitura hertsatzaile edota zapaltzaileen eraldaketan parte hartuko duten ikasle aktibo eta kritikoak prestatzea da, gizarte zuzenago baten eraikuntzan egile historikoak izan daitezen.

Euskal curriculuma eratzen

Euskal Herrian, curriculum, edo hezkuntza programa bezala izenda daitekeena, aspaldiko kezka izan da euskal komunitatearentzat. Eta ez da harrigarria euskal curriculumaren aldeko lan nagusia hain zuzen ere euskal eskola amets zuten berdinek egin izana. Ikasketetako eragileek.

Berez, Euskal Herrian hainbat curriculum daude, zatiketa administratiboaren ondorioz. Nafarroan bat dago, eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan beste bat. Lau herrialdeotako eskoletako curriculumaren %55 Espainiako Gobernuak ezartzen du, eta gainerako %45 erkidego

bakoitzaren administrazioak. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, azkenik, beste curriculum bat dago, Frantziako Estatuak zehazten duena.

Euskal curriculum zehazteko lehen proiektua edo asmoa 1992an jaio zen, ikastolek egindako II. Batzar Nazionalan, eta handik lau urtera egin zen [III. Batzar Nazionalan](#) Euskal Curriculum sortzeko ikerketa martxan jartzea erabaki zen. Helburua, garbi zegoen: Zer da talde gisa, kolektibo gisa, herri gisa, belaunaldi batetik bestera euskal eskolak transmititzea nahi duguna?

Ikerketa talde horretan lanean hasi zirenek garbi zuten indarrean zeuden curriculumek ez zutela balio herria eta komunitatea indartu eta sendotu nahi zuen hezkuntza proiektu baterako. Baina garbi zuten, era berean, curriculum berria ez zela soilik bertako kultura eta tradizioei begirako hezkuntza proiektua izango: etorkizuneko gizartearen kokatutako euskal curriculum nahi zuten, bertakoa eta unibertsala ondo uztartuta.

Horretarako, indarrean zeuden curriculumen azterketa egitea erabaki zuten lehendabizi. Aztertzea zer nolakoak ziren euskal ikasleek ikasten zituzten edukiak; zeri erreparatzen zioten, zeren arabera. Euskal lurralde guztietako curriculumak hartu zituzten aintzat, eta berehala ondorioztatu zuten ez zegoela kultura komun bat, "euskal dimentsioa" izenda litekeena.

Esaterako, adibide bat aipatzearren: *Euskal Herria* hitza bera, zeina euskal komunitatea izendatzeko erabili ohi den, oso era ezberdinez agertzen zen aztertutako curriculumetan, eta hainbatetan ez zen agertu ere egiten. Orokorrean, Espainiako curriculumean agertzen ziren jakintza arlo edo gaien tratamenduaren garapena, egokitzapena eta zehaztapena zela ondorioztatu zuten ikerlariek. Ez zegoela, alegia, euskal curriculumaren asmo edo borondaterik. Ez zegoela euskal komunitateak berez pentsatutako curriculumik. Hizkuntza testuetan jorratzen zenean ere, hizkuntzaren alderdi soziolinguistikoak eta historikoak aipatzen ziren, baina horiek soilik euskararen arloan agertzen ziren, eta ez gaztelerarenean.

Ipar Euskal Herriko curriculumari dagokionez, ikerlariei nabarmentzeko modukoa iruditu zitzairen ez zegoela gainerako kultur edo hizkuntzei buruzko inolako aipamenik, are gutxiago euskarari edo euskal lurraldeei buruzkoa. Ikastolek eta euskal komunitateak funtsezkotzat jotzen zuten aniztasuna eta euskal sinologiaren arrastorik ez, beraz. Laburbilduz, ikerketaren emaitza izan zen Ipar Euskal Herriko euskaldunek aukera gutxi zutela curriculumaren bidez euskaraz, euskalduntasunaz eta euskal kulturaz jabetzeko, eta Hego aldeko euskaldunak batzen zituena, berriz, Espainiako oinarritzko curriculum zela.

Ikastoletako partaideek horrela baieztatu ahal izan zuten Espainiako eta Frantziako curriculum ofizialak oso urrun

zeudela euskal curriculum batetik, eta Espainiako curriculum garatzen zuen EAEko eta Nafarroako curriculum ofizialek ere hutsune nabarmenak zituztela. Eta euskal curriculumak beharrezkoagoa zela ondorioztatu zuten. Haiek kixkia deitu zioten euskal curriculumari. Pilotaren zurzurra. Tipularen barruko geruza. Bihotza. Arima. Euskal Herria, Europan egonda ere, mendebaleko kulturaren parte izanda ere, horixe, euskal egiten zuena. Eta horrela jarrai zezan ezinbestekoa zen transmisioa ziurtatzeko, haur bakoitzari, pilota bakoitzari, kixkia jarri behar ziotela erabaki zuten.

Pilotaren kixkia

Baina, zer zen kixkia? Zer zen Euskal Herria euskal egiten zuen geruza hori, Europako gainerako herrietatik gure espezifikotasuna? Euskal Herriaren nor-tasun etnoterritorial eta kulturekin zeharrikurik gehien edo harremanik agerikoena zuten arloak Hizkuntzalaritza eta Literatura, Geografia eta Historia, eta, zentzu zabalago batean, Antropologia direla uste izan da, eta horiei ezarri izan zaie aurretik euskal marka. Horregatik, ikasgai horiek izan ziren, hasierarik, euskal zigilua jaso zutenak. Horiek izan ziren, beraz, ikastoletako kideak lantzen hasi zirenak. Gainerakoak ez ziren, hala ere, arrotzat hartu. Beste jakintza arlo guztiak ere Euskal Herrikotzat hartu ziren, nahiz unibertsalak izan: "Uniber-

tsalak, beraz Euskal Herrikoak ere bai". Nola lortzen da hori? Gai eta jakintza arlo horiek guztiak, euskararen bidez transmitituz. Espainolek edo frantsesek jakintzok norbere hizkuntzan transmitituz unibertsaltasuna azpimarratzen duten arrazoi berdinengatik.

Jakina, horretarako lehen urratsa irakasleen prestakuntza da. Irakaslea da curriculum geletan garatzen eta praktikara eramaten duena, eta euskal curriculumaren egileek garbi asko ikusi zuten irakasleen prestakuntzan txertatu behar zirela curriculumaren oinarri eta helburu nagusiak, ideia horiek gero ikasleengana iritsiko baziren.

Arazoa ez zen makala, irakasle izateko iristen ziren gazte gehienek ez zutelako euskal curriculumaren arabera ikasi, eta prestakuntza ere halatsukoa zutelako. Formazio eta birziklatze etengabea eskatzen zuen proiektua zen euskal curriculum. Irakaskuntzaren arlo guztietako langileak eta bultzatzaileak etengabeko prestakuntzara behartzen zuen egitasmo handinahia.

Halaber, ikas materialari buruz ere gogoeta egin beharra zegoen. Ikasmaterialek gabeko irakaskuntza pentsaezina da, bitarteko horiek gabe nekez irakats baitezake irakasleak. Ia ezinezkoa da gelarako behar den material guztiak irakasleak berak sortzea. Materialaren garrantzia areagotu egiten da hizkuntza bat normalizazio prozesu batean dagoenean, ikas materiala, alegia liburuak, fitxak, ikus-entzunezkoak, hiztegiak, en-

tziklopediak, horiek izango baitira normalizazio horri itxura emango dioten erreferentziak.

Materialen alorrean, urrats asko emanak ziren ikastolen curriculumaren gaiari heldu ziotenean. Ikastolak asko ziren, ikasle asko ikasten ari zen haietan, eta hainbat argitaletxe, Euskal Herrikoak zein Euskal Herritik kanpokoak, lanean ari ziren liburuak eta gainerako materiala euskaraz sortzen. Ez da ahaztu behar lerro publikoan ere, nahiz eta erkidego eta administrazio bakoitzak abiadura eta helburu desberdinekin lan egin, sartuta zegoela euskarazko irakaskuntza ere. Euskaraz ikasten zutenen kopurua gora ari zen, haur hezkuntzatik unibertsitateira iritsi arte, eta materialgintzan aurrerapauso nabarmenak emanak ziren. Baina gabeziak ere nabarmenak ziren euskal ikuspegiaren betaurrekoekin aztertuz gero.

Material horretan, esaterako, ez zegoen euskal lurraldeen muga geografikoari edo deituei buruzko batasunik edo irizpide bateraturik. Orobat euskararen eta euskal kulturaren trataerari buruz, edo historiari eta gizarte antolamenduari buruz. Kasu askotan, gaztelaniazko jatorrizko testuen itzulpen hutsa zen euskaraz plazaratutako hainbat testuliburu. Bertako argitaletxeen ikasmaterialean ere, nahiz eta euskal dimentsioaren isla askoz ere handiagoa izan, Espainiako curriculum ofiziala zen erreferentzi nagusia, eta, ikastoletako arduradunen ustez, ez zuten euskal dimentsioa bermatzen curriculumean. Zer leku dagokie

itzulpenei, eta zein alorretan komeni da sorkuntza-lanari erabateko lehentasuna ematea? Nola eratu behar da ikasmaterialeen eduki-azterketa? Galdera horiek zituzten buruan.

Euskal curriculumak lantzen

Horiek ziren oinarriak. Ikastolen ustez, euskal komunitateak behar zuen irakaskuntza bermatzeko zutabeak. Lanearan hasi eta 2004ko uztailaren *Euskal Curriculumak: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena* lana aurkeztu zuen Ikastolen Elkarteak. 700 orrialdeko liburua zen, 63 adituen iritziekin. Hor bildu zuten Euskal Herriko pertsona kultu batek Euskal Herriaz eta munduaz jakin beharko lukeen ondarea. Hor zegoen kixkia. Baina oraindik beste urrats bat ematea falta zen. Hori guztia nola sartu pilota barruan: *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumak* osatzea, alegia.

Horretarako, konpetentzien edo gaitasunen gaian zentratu ziren adituak. Konpetentziarena edukien ifrentzia da, irakaskuntza munduarekin eta gertuko komunitatearekin hurbileko egiten duen bizi esperientziaren oinarrian dagoen trebezi multzoa. Oinarrian dagoen

hausnarketa da eskola ez dela bakarrik edukiak edo jakintzak hartzeko gune bat, harremanetan bizitzen eta dagokigun testuinguruan moldatzen ere irakasteko tokia badela. Eta hori eskuratzea ezinbestekoa dela. Eta horretarako toki egokia, nahiz eta ez bakarra, eskola dela.

Ikastolek zehaztu egin zituzten konpetentzia edo gaitasun horiek:

- Ikasten eta pentsatzen ikastea
- Komunikatzen ikastea
- Elkarrekin bizitzen ikastea
- Egiten eta ekiten ikastea
- Norbera izaten ikastea

Curriculumaren helburu nagusien artean azpimarratzen zen euskal kultura ez dela transmititzen curriculum ofizialetan, edo ez dela nahikoa ondo transmititzen. Halaber, Europar integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreaginean bizi ahal izateko beharrezkoak diren konpetentziak sartu beharra azpimarratzen zen. Eta, konpetentzien gaiarekin lotuta, Jacques Delorsen zuzendaritzapean Unesco-rentzat egindako txostenean aipatzen zen oinarritzko kontua gogoratzen zuen. Alegia, hezkuntzaren funtzioa ez dela bakarrik hizkuntza eta kultura trans-

Eskola ez da bakarrik edukiak edo jakintzak hartzeko gune bat, harremanetan bizitzen eta dagokigun testuinguruan moldatzeko tokia ere bada



mititzea; horrez gain, bizitzako eremu guztietarako prestatu behar ditu pertsonak, ikasten ikasteko konpetentzia garatu behar duela. Zertarako? Gure giza izaera zein den ulertzeko, pentsamendu kritikoa bultzatzeko, sormen gaitasunak garatzeko, eta gure ekintzen erantzule izaten laguntzeko.

Hori guztia praktikara ekarrita, hiru gerezako pilota ateratzen da:

- **Euskal Curriculum osoa.** Munduaren ikuspegi jakin batetik, gure kasuan euskal ikuspegitik, egindako euskal prozesuen eta produktuen hautaketa. Kultur prozesu eta produktuetan, Euskal Herrian berariazkoak, bereganatu direnak eta unibertsalak sartzen dira. Edonongo curriculumean ehuneko zatirik handiena unibertsala izaten da, eta Euskal Curriculumean ere gauza bera gertatzen da. Nabarrena da Europako edo mendealdekoko ikuspegiaren eragina. Eduki horiek ikusteko, interpretatzeko eta adierazteko era da aldatzen dena.

- **Oinarritzkoa eta komuna.** Curriculumaren edukia oinarritzkoak hartzen dira garapen pertsonalerako, eguneroko elkarbizitzarako eta lanerako garrantzizkoak direlako, edota beste ikasketa batzuk eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko oinarriak finkatzen dituztelako. *Komunak*, berriaz, ikasle guztien arteko kohesioa eta batasuna, eta aukeren berdintasuna bultzatzen dutenak.

- **Euskal Curriculum Espezifikoa (propioa edo berariazkoa).** Euskal Herriko edukiek osatzen dute Euskal Curriculum Espezifikoa, propioak izan edota bereganatuak izan. Beste era batera esanda, beste kulturengandik bereizten gaituena da.

Curriculumaren aldeko lanak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren laguntza eta bultzada izan zuen hasieran, baina ondoren lankidetzaz hori baztertu eta bidea eten egin zen.



ELEANIZTASUNA HELBURU

Munduko herrialde gehienak elebidunak dira. Edo eleanitzak. Amazonian, Europa erdialdean, Kaukason edo Afrikako eremu handi batean, ohikoa izan da inguruko hainbat hizkuntza jakitea, tresna baliagarriak izan dira elkarrekin bizi ahal izateko. Hezkuntzak, horregatik, ama hizkuntzaren ezagutza ziurtatzeaz gain, beste hizkuntza bat jakitea bermatu beharko luke. Garbi utzi behar da, nolahi ere, hizkuntza berri bat ikasteak ez dakarrela, ez lukeela ekarri behar, ama hizkuntza gutxika galtzea.

Hizkuntza asko bigarren eta hirugarren hizkuntza gisa ikasten dira, eta taldeen arteko bizikidetzan izaten diren gizarte harremanen ondorioz, edo migrazioen ondorioz edo hainbat hezkuntza politikaren bidez, gizartearen zati handi bat elebidun edo eleanitz bihurtzen da bizitzan zehar. Beste hizkuntza bat ikastera bultzatzen duten arrazoiak sozio laboralak izan daitezke, komertzialak, zientifikoak edo politikoak. Baina garbi utzi behar da hizkuntza bat ikasteko prozesu oro heziketa izan behar lukeela, kultur

eranskin bat; beste kultur bati sarrera bat izan behar luke, inola ere ez norberarena galtzea.

Gainera, beste komunitate bateko kideek gutxitutako hizkuntza bat ikasteak, eta hizkuntza hori galdu duten bertako kideek ikasteak, prestigioa ematen dio hizkuntzari. Eta hori erabakigarria da hizkuntzen berreskuratze prozesuetan. Hizkuntza bat berpiztea eta erabat berreskuratzea zaila da, baina ez ezinezkoa, eta hezkuntza oso garrantzitsua da horrelako ekimenetan. Hor ditugu hebreera, maoriera, euskara, galesa, katalana, eta hor ditugu mapudungu, samiera, triquieraren adibideak.

Eskolak hizkuntza gutxitu bati egin diezaiokeen beste ekarpen bat da haurrengan autoestimua indartzea, eta beste kultura eta hizkuntza batekiko ikuspegi positiboa garatzen eta desberdintasunak onartzen eta errespetatzen lagundu dezake. Eskolak hizkuntza galeraren aurkako erresistentzia guneak dira, eta hizkuntza plangintza aurrera eramate-



ko gune estrategikoak, bai idazketa eta estandarizazioa hedatzeko zein irakasle indigenak prestatzeko edo azpiratutako eta jazarritako hizkuntzen estatusa indartzeko.

EHUko Unesco katedrak hainbat gomendio luzatu ditu hizkuntza eta hezkuntzari buruz, hezkuntza eta kultur alorretako kudeatzaileek aintzat hartu beharko lituzketenak:

- Eleaniztasuna da kultur aniztasuna babesteko eta globalizazio arriskuei aurre egiteko gaikuntzarik egokiena. Milurteko berrirako hezkuntzaren helburu nagusia hizkuntzetarako gaitzea behar luke.

- Eleaniztasuna helburu orokorra izan beharko luke, ez bakarrik eremu urriko hizkuntzetako hiztunen betebeharra.
- Gutxitutako hiztun komunitateek instituzioen laguntza eta aholkularitza jaso beharko lukete, beren hezkuntza sistema sortu eta garatu ahal izateko, baina komunitateek ezarri behar dituzte helburuak.
- Idazketarik ez edukitzeak ez du eragotzi behar eskolan hizkuntza erabiltzea; ahozko erabilerak bultzatzeak izan behar du hezkuntzaren lehentasuna, are gehiago hizkuntzak gizartean erabilera urria badu.
- Gizaki eleanitzak edo, gutxienez, elebidunak sortzea lortu duten hezkuntza ereduak dira hizkuntz aniztasunari eusten gehien lagun dezaketenak.
- Etorkinentzat, murgiltze metodo pedagogikoak gomendatzen dira, eta murgilketa horrek bateragarri behar luke haien jatorriko hizkuntzak gordetzearekin.
- Eskola elebakarraren eredia oso arriskutsua da hizkuntz aniztasunerako.
- Eskolak ez du bermatzen hizkuntza baten berreskurapena, ezta iraungo duenik ere, baina zaila izango da hizkuntza bat salbatzea, dagokion hizkuntz komunitatearen hezkuntza sisteman ez badago.

- Mundu osoan onartuta dago biolibertsitatea baloretzat, eta modu berean lortu behar da hizkuntz aniztasuna ere gizateriaren kultur ondarearen baloretzat hartzea.
- Eleanitz izatea oso baliagarria da gaur egun, esaterako merkataritza trukaketarako, gizarte eta politika harremanetarako, teknologia eta jakintza arloetan egiten diren aurkikuntzak jarraitzeko. Eskolak, beraz, hizkuntzen ikaskuntzan lortzen diren ikasketa maila guztiez gozatzen eta horietako bakoitzari etekina ateratzen erakutsi behar du.

Eleanitz proiektua

Eleaniztasuna helburu, Euskal Herrian hainbat proiektu garatu dira gaztelania eta euskara ez ezik, hirugarren hizkuntza ere eskolan sartzeko. Gaur egun, sare publiko osoan ingelesa derrigorrezko ikasgaia da, baina ordu kopurua asko aldatzen da ereduaren arabera, eta ikastetxeen arabera. Orokorrean, esan daiteke ingelesa gero eta presentzia handiagoa hartzen ari dela eskolen programazioan.

Ikastolak ere ez dira atzean geratu, eta, gaur egungo proiektu izarra [Eleanitz izeneko egitasmoa](#) da, elebitasuna bai-





no eleaniztasuna helburu duena. Horretarako, eredu integratzailea garatu zen jatorri kultural eta linguistiko ezberdinetako ikasleentzat, eta eredu horretan euskarari eusteko eta euskararen murgiltzeko programak landu ziren. Ikasle gehienen ama hizkuntza gaztelania izan arren, eskolan, bigarren hizkuntzat hartu zen, eta haurrak 8 urterekin hasi ziren hizkuntza hori irakasgai gisa ikasten. Gaztelaniaren irakaskuntzaren helburua erregistro akademiko formalaren garapen zuzena bermatzea zen; hau da, eguneroko bizitzan lantzen ez diren erregistro akademiko eta formalen garapena. Haurrak 4 urterekin hasi ziren hirugarren hizkuntza ikasten, kasu honetan ingelesa. Alde batetik, adin goiztiar horretan hizkuntzak bereganatzeko erraztasun handiagoa duelakoan;

bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren plangintzaren barruan ingelesa ikasteko ordu kopurua handitzeko. Baina, beti ere, euskararen nagusitasuna arriskuan jarri gabe.

Esan behar da, nolanahi ere, eztabaida handiak pizten dituela oraindik hirugarren hizkuntzaren sartze goiztiarrak. Finlandian, esaterako, 11 urterekin hasten dira haurrak ingelesa ikasten, eta emaitzak oso onak dira.

Ikastolen proiektuaren atzean ideia nagusia bat zegoen: nazioartean estatus handia duten espainola eta frantsesaren ondoan jarri behar da euskara, baina, era berean, euskaldunok beste hizkuntza bat menderatu eta ondo erabili behar dute,

bestela euskara bera arriskuan egon baitaiteke.

Hori guztia garatzeko, 2000. urtean ikastolek Hizkuntz Proiektua garatu zuten. Proiektu horren helburu nagusia da, ikasleen komunikazio gaitasuna garatzeaz gain, hizkuntza bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri izatea.

Eleanitz proiektua mailaka ezarri zuten ikastolek. Mailaka eta hainbat tokitan bakarrik. Lehenengo hiru urteetan bi aukera eskaintzen hasi ziren, euskara beti hizkuntza nagusia zela. Lehen aukeran —Eleanitz-English izenekoan—, ingelesa 4-16 urte bitarte ematen zen; gaztelania, 8-9tik 15-16ra arte; eta frantsesa, 12tik 16ra. Bigarren ereduan, aldaketa bakarra zen frantsesa 4 urtetik 16ra es-

Euskara gainerako hizkuntzen parean jarri behar da, baina euskaldunok beste hizkuntza bat menderatu behar dugu, bestela euskara bera arriskuan egon baitaikete.

kaintzen zela. Ikastolen Federazioak berak sortu zuen ikasmateriala.

Ebaluazioak erakutsi du DBHko ikasleen %69,7k 7. maila gainditzen duela Trinity Collegeko ESOL frogan, mintzameneko frogan, eta euskararen emaitza globalan ez dagoela alde nabarmenik eleaniztasun planteamendua jarraitu zuten talde esperimentalaren eta kontrol taldearen artean.



NOLA ANTOLATU IRAKASKUNTZA EREDU BAT

Jakina, hezkuntza sistema oso bat mar-txan jartzeak [erronka didaktiko han-diak dauzka](#). Ikaslearen, irakaslearen eta irakasten den hizkuntza edo hiz-kuntzen edukien arteko loturak ondo aztertu behar dira, ezarri nahi den ere-duak arrakasta izango badu. Eta eredu horren arrakasta oso lotuta egongo da inguru soziolinguistikoarekin, are gehia-go hizkuntza gutxituen kasuan. Ez bai-tago eskolaren esparruko hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza jorratzerik hizkuntza horiek eskolaz kanpo dauka-ten egoera soziolinguistikoa kontuan hartu gabe. Eta hizkuntzaren egoera soziolinguistiko ahulak, noski, eskola-ko irakaskuntza eta ikaskuntza maila baldintza dezake.

- Egia da hizkuntza batek ez diola hiz-kuntza izateari utziko hezkuntzan ez erabiltzeagatik, baina kontuan hartu behar da kulturaren transmisioan,

prestigioa zabaltzeko eta estatus go-ragoko bat emateko tokia dela eskola. Eta gaur egungo gizartean, funtsez-koa, bizirik eta sendo irauteko.

- Gutxituta egotera iritsi den hizkuntza berreskuratzeko gizarte nahi argi eta garbia duten munduko eskualdeetan, hizkuntza murgiltzeko programak dira hedatuenak eta erabilienak. Eus-kal Herriko esperientziak erakusten du, bederen, murgilketa sistemak ba-karrik laguntzen duela bi hizkuntzak, etxekoa zein nagusia, ondo ikasten. Eta emaitzak ez direla inola ere kal-tegarriak ikaslearentzat. Alderantziz: hizkuntza bat baino gehiago jakiteak onurak dauzka ikaslearentzat, erraz-tasunak eta trebetasun berriak ekar-tzen dizkiolako, eta beste hizkuntza gehiago ikasteko bidea leuntzen duelako.

- Hizkuntza eredu bat martxan jartzeko [ikasmateriala lantzea eta irakasleak prestatzea](#) dira lehen urratsak, curriculum adostearekin batera. Euskal Herrian, ordea, hori guztia baino lehenago hasi zen dena. Proiektua martxan jarri zen, eta gero ikasmateriala, irakasleen prestakuntza eta curriculum lantzen hasi ziren. Horrek erakusten du herriaren edo gizarte baten gogo eta kementa egonez gero, nork bere bidea asmatu dezakeela.
- Garrantzitsua da eskola berria hizkuntza eta kultura propioaren espazio eskusiboa izatea. Izatea ez bakarrik ikasteko tokiak, ezpada hizkuntzaren etxeak.
- [Curriculum, ikas materiala, bidea bera komunitate bakoitzak erabaki behar du](#). Hor erabaki behar du bere tradizioari zer leku eman nahi dion, kosmobisioa nola landuko duten, inguruarekiko zein nolako harremanak landuko diren, gainerako herriekiko zer erreferentziak egingo diren. Komunitate orok eduki beharko luke bere hezkuntza bere modura antolatzeko eskubidea.
- Irakasleak elebidunak izatea, esaterako, gomendagarria ez ezik ia ezinbestekoa da kasu gehienetan. Ezinbestekoa izateak ez du esan nahi, ordea, begi-bistakoa denik. Euskal Herrian esaterako, 1977an sektore publikoan ez ziren %5era iristen euskara zekiten irakasleak, eta gaur egun, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan %80tik gora dira.

Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak onurak dauzka ikaslearentzat, erraztasunak eta trebetasun berriak ekartzen dizkiolako.

Nolanahi ere, irakaslea eredu izan ohi da ikasleentzat, eta hizkuntza gutxitua jakitea eta erabiltzea ezinbestekoa da noski, hasieratik urratsak egin ahal izateko.

- Zer gertatzen da irakasleak eta ikasleak darabiltzaten dialektoa berdina ez baldin bada? Hainbatetan, hori kezka iturri izan ohi da gurasoentzat, hurrek etxeko hizkera galduko dutelakoan. Gaur egun, mundu osoan, idazten eta irakurtzen ikasteko tresnatzat hartzen da eskola, eta horrelakoetan garbi dago hizkuntza estandarra, lagungarri ez ezik, batzuetan ezinbestekoa dela, hizkuntza estandarrek edo bateratuak horixe baitira, idazteko konbentzio multzoa. Dialektoak aberastasun gisa ikus daitezke gelan, aldaerak ikastea helburu modura hartuz gero. Gainera, ez da ahaztu behar hizkuntza gutxitu askok ez daukala aldaera estandarrik, eta kontzeptu hori, hizkuntza estandarrena, hizkuntza idatziekin eta, ondorioz, askotan hizkuntza hegemonikoekin lotuta egon ohi dela. Idazketa, estandarizazioa eta literatura idatzia duten hizkuntzak munduko hizkuntza guztien laurdena baino ez dira. Munduko hizkuntzen %19 idazketarik gabeko hizkuntzak dira, nahiz eta



Ameriketako (Abya Yala) indigenek aldarrikatzen duten euren sinetsimena eta historiak eta istorioak diseinu eta marrazkien bidez kontatu dituztela. Beraz, hizkuntza estandarra bada eskolarako tresna egokia, baina hura gabe ere abiatu daiteke irakaskuntza eredu sendo bat. Euskal Herrian horrela abiatu zen, estandarra ondoren etorri baitzen. Eta esan daiteke estandarrek laguntza handia eman ziola euskarazko irakaskuntzari, eta euskarazko irakaskuntzak estandarra finkatzen eta zabaltzen berebiziko garrantzia izan zuela.

- Besterik da ahozko transmisioan oinarritutako eskolen kasuan. Ikastolen hasierako garaietan ere, oso txikia eta urria zen idatzitako materiala,

ez baitzegoen ez irakasle prestaturik horretarako, ezta gaitasunik ere materiala sortzeko. Baina esan behar da eskolak, orokorrean, garrantzia gutxi eman diola ahozkoaren irakaskuntzari. Gutxiegi, beharbada. Amerikako hizkuntza indigenen kasuan, tradiziozko ahozko testuak oso garrantzitsuak eta baliagarriak izan daitezke hizkuntza gutxitu horien irakaskuntzarako.

- [Eleaniztasuna munduko ondasuna da](#), eta irakaskuntzak, ama hizkuntzaren ezagutza ziurtatzeaz gain, beste hizkuntza bat jakitea bermatu beharko luke. Garbi utziz, hizkuntza berri bat ikasteak ez dakarrela, ez lukeela ekarri behar, ama hizkuntza gutxika galtzea.

BIBLIOGRAFIA

- *Normalización lingüística y escolaridad* (Mikel Zabide, 1998)
- *Lengua, escuela e inmigración* (Ignasi Villa, 2004)
- *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculum* (Hainbat egile, 2008)
- *Ikastola mugimendua. Dabilen herria* (Euskal Herriko Ikastolak / Euskaltzaindia, 2010)
- *Elebitasunetik eleaniztasunera* (Itziar Elorza, 2010)
- *Euskara sustatzeko eleaniztasuna: ikastolen kasua* (Itziar Elorza, Inmaculada Muñoa, 2010)
- *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan* (Ibon Manterola, 2010)
- *Hizkuntza gutxituen erronkak* (Ibon Manterola, Naiara Berasategi, 2011)

AURREKO ALEAK



Garabide Elkartea